Ardatz hau gure lehenetasa da. Errealidadea tematia da, eta badinosku ez dagoala miraririk ez eta antzekorik be. Behar gogorra da: egin geinkean gauza bakarra jarduera eta lanpostuak sortzea da. Konponbide arinak eskaini behar deutesaguz beharizan bakotxari eta batera egin behar dugu lan enparauko eragile eta erakundeakin. Hurrekotasuna eta lankidetza. Eredu honek balio dau eta adibideak aurkezten ditu hori frogatzeko.

ASK Chemichals multinazionalak Bizkaira etortea erabagi dau eta 10 milioi euroko inbertsinoa egingo dau eta ehun bat lanpostu sortu. Proiektu honegaz batera badagoz Lointek, PCB, Almston edota ThyssenKrupp-enak: 400 bat lanpostu industrial barri izango dira Bizkaiarentzat. Azken baten, jarduera ekonomikoa eta enplegu gehiago Bizkaiarentzat. Eta ausartuko naz esaten laster baten zerrenda luzatuko dala.



Helburu beragaz martxan jarri dogu Energy Intelligence Center, EIC, apustu estrategikoa etorkizunerako; horrela nazioarteko lehiakideak izango gara energiaren arloan. Bost hilabetetan akordio bi sinatu ditugu, ibilbide luzeko eragileak izango diranak. Lehenengo Petronor-Repsolegaz egin dogu, bai Mugikortasun Iraunkorraren Unidatea sortzeko, bai efizientzia haundiko errekontza motor bat garatzeko. Bigarrena, Artech, Ingeteam eta Ormazabalegaz sinatu dogu, mikrosare elektriko inteligentea sortzeko. Lortu dogu euren artean lehiakide diran enpresak apustu bakarra sinatzea. Badihardugu aztertzen oil&gas eta energia barriztagarriak. Denborak esango dau.

Foru Aldundiak Bizkaia industrialaren alde jotzen dau eta geure burua sartu dogu arazoak daukiezan enpresai laguntasuna emateko, berbarako ACBrako. Bizkaiko Altzairugintza Tringoa barriri zabaltzea lehenengo pausua izan da, ezinbestekoa, Sestaoko lantegiaren etorkizuna bermatzeko. Hala-ta-be, ez da nahikoa. Foru Aldundiak erabat berreskuratu nahi dau lantegiaren ahalmena, bai produkziorako, bai enplegurako. Eta horretarako plan industrial handigura behar dogu. Foru Aldundiak ez dau onartu nahi ACB arriskuan egoterik.

Aitor dot ezintasuna igarri dodala Eatonen zuzendaritzak EREren gainean izan dauan eretxia aldatu ezin izan dodalako. Ez da kontsolazioa, baina ahalegin guztiak egin ditugu, bai eta ia-ia ezinezkoa zanean bere. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eta Metaleko Enpresen Bizkaiko Federazioaren arteko ekimen bati esker, Eaton-go eta Arcelorko 83 beharginek ontzigitzako eta metaleko industrian izango dabe beharra. Industria horrek eskarmentua daukan eskulana behar dau. Foru Aldundiaren eta Federazioaren artean batera jardungo dogu behargin horreei prestakuntza emateko industria horreei begira.

Enpleguak mogitzen gaitu. Pasa dan zapatuan enplegu publikoaren eskaintzaren lehenengo probak egin ziran: 195 plaza, gobernuko lehenengo urtean. Lehenengo hiru enplegu-anezkek amaitu dira, eta hareen laneratze-tasa, batez beste, % 62,67koa izan da. Legegintzaldiko lehenengo urte honetan, 18 ekimen jarri ditugu martxan, ekintzailei eta enpresai laguntza emateko. Negoziorako 188 ideia barri lagundu ditugu. 194 enpresa lagundu ditugu, produktuak, prozesuak edota teknologia barrizatzeko. Enpresa txikiak laguntza emateko plan barri bat diseinatu dogu, 50 proiektu sakatzeko. 3i programa sortu dogu helburu honeekin: barrikuntzari laguntza ematea; enpresak nazioartean jartea eta inbertsinoa laguntzea. Hamabi proiektu 2016an; guztira, 225 enplegu sortuko ditue proiektuok. Eta ez hori bakarrik: itxaro dogu 12 enpresa horreen fakturazio metatua 170 milioi eurotik pasauko dala 257 milioira 2018an.

Laguntasuna emon deutsegu 235 autonomori eta 86 enpresari, zertarako eta hareen maileguen korritu-tasa finantzatzeko eta inbertsinoak egiteko. Autoenpleguko eta ekintzailetzako programak bizibarritu ditugu, bai eta laneratze programak be, arazoak daukiezan kolektiboentzat: 30 urtekoak baino gazteagoak diranentzat, 45 urtetik gorakoentzat, iraupen luzeko langabeentzat eta gizarte-bazterketako egoeran dagozanentzat. Badaukaguz abian planak, eskualdeak berbizzateko. Laguntasuna emon deusagu Bizkaiko merkataritzari: Bonoredekor, Bonodenda eta Bonokultura. Nabarmendu nahi dot dinamizazio-jarduera horreetan eta beste batzuetan parte hartu dabela Bizkaiko 5.000 dendak baino gehiagok. Enpresen 129 proiektu lagundu ditugu atzerriko merkadu barrietara heltzeko. Eta aholkularitza emon deutsegu 400 enpresari, euren burua nazioartean jarri daien.

Danetara, ia 36 milioi euro erabili ditugu, programa eta ideia barri honeetan, jarduera ekonomikoa eta enplegua laguntzeko. Ia 36 milioi erabili ditugu ekonomia eta enpresak dinamizetako. Jarduera ekonomikoz eta enpleguagaz daukagun konpromisoa benetakoa da, bai gogoz eta, batez ere, bai ekinez.

Baina ez gagoz conforme, gehiago behar dugulako. Ze badiugu 80.874 lagun behar barik. Lanbideren datuak dira horreek. Badakit langabe horreek guztiok ez dagozala ahaldu honek emongo dituan berba gozoen zain. Ekintzak



eta aukerak daukiez itxaroan. Eta horretan dihardugu gobernu honetan. Ez dogu miraririk egiten, ostera, baditugu ideiak, ekimenak eta ilusinoa, ilusino itzela, etorkizun hobia ekarteko.

Lan hori hasi da lehenengo etekinak emoten. Egun ia 16.275 langabe gitxiago dago orain dala hiru urte baino. Barne-produktu gordinak hazkunde iraunkorra izan dau azken urte bietan. Industria Produktzioaren Indizeak 10 puntu baino gehiago berreskuratu dau azken hiru urteetan. Industriak erabateko garrantzia dauka Bizkaiko ekonomian; izan be, balio erantsi gordinaren % 24 sortu dau, bai eta enpleguaren % 16 be. Enpresen establezimenduen altak eta bajak lehenengo aldiz izan ditue kopuru positiboak azken sei urteetan. Egia da beste garai batzuetako ratio positibo batzuk txarrera egin dabela, adibidez, esportazioenak, I+G jardueren gastuak edota ekintzaitzaren tasak. Hori egia da. Gauza onak eta ez hain onak. Heldu deiodan bigarren ardatz estrategikoari.

### **Gizartearen eta lurraldearen kohesinoa eta aukera-bardintasuna bermatzea**

Pertsonakin hasiko naz, eurak diralako gobernu honen benetako burmuinak. 531.302.306 euroko inbertsinoa egin da gizarte-gaietan lehenengo urte honetan. 531 milioi €. Gizarte-gaietan biztanleko egin dan inbertsinoa 1999ko 264 euroetatik pasau da 1.064 euroetara 2014an. Berbatuta gagoz pertsonakin eta beren-beregi gehien behar dabenakin. 941 adinbakori emon deutsegu arreta eta bide emon dogu totoretzapean egozan 317 adinbako familia-harrerara pasetako. Badabilz lanean Zorrotzako egoitza barriko eta eguneko zentro barriko 123 plaza publikoak. Badago martxan Habitat Bizkaia programa; ekimen honek etxebizitza emoten deutse etxerik euki ez eta arazo larriak daukiezan pertsonai. Pisu bat zabaldu dogu ahalmen-urritasunak daukiezan pertsonentzat Usansolon. Beste pisu bat Fruizen ume autistentzat. Eguneko zentro bat, adinbako autistentzat Garamendin, Bilbon. Astegoieneko eguneko zentroa Zamudion, zaintzaileai arnasbidea emoteko.

Mendekotasuna daukienai eta hareen zaintzaileai arreta emoteko programak, ekitaldi honetan, gaudituko dau Bizkaiko biztanleen % 85. Adinekoen Kontseilua berbiztu dogu eta udalerriai eragiten deutsegu edade guztientzako inguruak sortu daiezan. Mendekotasunaren Legean dagozan prestazinoak oso-osorik zabaldu ditugu. Sentiberatze-kanpaina bat sakatu dogu indarkeria arkoiauren aurka. Udagoienean programa bat jarriko da martxan, arreta emoteko indarkeria arkoia jasaten daben seme-alabentzat. Bide batez, besarkada bero-bero bat emon nahi deutset gatx hori jasaten daben andrazko guztiai. Animo. Ez zagoze bakarrik.

Ahaleginak egiten gabilz andrazkoak gehiago agertu daitezcan eremu guztietan: Gobernu Kontseilutik hasita, bertan andrazkoak gehiago dirala, eta kiroleraino. Badihardugu beharrean andrazko guztiak aukera bardinak izan daiezan, bai gizartean, bai lurraldean.

Behin baino gehiagotan entzun deustazue esaten garaiok ez dirala egokiak obra haundietarako. Eta eutsi egiten deusat. Beti be, baita esan neban amaituko genduazala hasita egozan obrak, eta hori be bai bete dogu. Abuztuaren 8an zabaldu egin zan Gerediaga-Elorrio errepidea, eta autobia hori daborduko Durangaldearen lagun hurkoa dogu. Berari esker, joan-etorriak hobetu egin dira, bai eta bizi-kalidatea be. 12.200 ibilgailu eta 1.800 kamioi atera ditu Matienako, Abadiñoako, Atxondoko, Iurretako, Durangoko eta Elorrioko uriguneetatik.

Ez da garaia obra haundiak egiteko, bai, ostera, hurreko obrak egiteko. Apirilaren 28an aurkeztu genduzan Bidesarea Planaren 19 jarduketak: inbertsinoa 51 milioi euro t'erdikoa da 2017a arte, eta obrak eskualde guztietan egingo dira, Durangon, Derion, Zallan, Morgan, Muskizen, Usansolon, Bilbon... Obra horreek segurtasuna hobetzen dabe, inbertsino publikoa sakatzan dabe, eta, horrenbestegaz, ekonomia bizten dabe.



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia*  
*El Diputado General de Bizkaia*

Ingurumenari jagokoz lez, lurralde berde eta iraunkorra dogu. Bizkaiak aire-kalidate ezin hobea euki dau egunen % 99,67an. Eta edateko uraren gainean esan geinke gure hornidura ona dala, erabiltzaileen % 98k dinoen legez. Nekazaritzan, modernizazio informatikoaren plan bat egiten dihardugu, bai eta nekazaritzako elikagaien plan osoa eta nekazaritzako merkaduen analisia be. Zirkuitu laburra babestu behar dogu gure produktuen salmantan eta merkaturatzean. Abeltzaintzari jagokoz legez, dekretu barri bat nabarmendu nahi dot: idi-probak eta dopina arautzekoa. Beren-beregi nabarmendu nahi dot Foru Aldundiak hondartzeekin egiten diharduan ahalegina: 5,4 milioi euro inbertidu ditugu gure hareatzekin gozetako. Gure zerbitzuok askozaz gorago jarten gaitue beste erkidego batzuekin alderatu ezker: 154 sorosle tituludun, 31 hondartzain, 334 dutxa, 58 iturri, 725 paperontzi eta bidoi, 47 oin-garbitoki eta ia kilometro biko egurrezko zaldainak.

Azken urte honetan bakarrik, milioi bat euro inbertidu ditugu bosgarren edukiontzia jarteko Bizkaiko udalerrietan. Eta sentiberatze-kanpainak sakatzen ditugu hondakinen gaikako bilketa geroago eta hobeto egiteko.

Euskera zaintzen dogu eta erabili egiten dogu. Aurten, Bizkaiko Foru Aldundiari esker, 1.103 lagunek jaso dabe gure laguntza ekonomikoa, euskera ikasteko. 1.103 lagun horreei ez jake kostau euskera ikastea. Bai, ahalegina kostau jake, goraiatu eta txalotzen dodan ahalegina. Izan be, ekimen hori oso ondo hartu dabe euskaltegiak, eta asko gustau da beste lurralde batzuetan.

Nabarmetzen dot Atxurra atxuloko aurkikuntza prehistorikoa. Aurkikuntza horrek nabarmen goratu dau gure ondare historikoaren maila. Horigaitik, lurraldeak egun gitxi barru hartuko ditu ondarearen europar jardunaldiak. Erreferente izan gaitkez eremu honetan.

Eta, azkenik, defenditzen dot harro egon gaitkezala gure garraio publikoaren sistemagaz. Bizkaibusek linea gehiago dauka, hurrago dogu geugandik, eta egunean baino egunean modernoagoa da. Bizkaibusek badauka wifia, bai eta eskuko telefonoen kargagailuak bere. Metroak beteten ditu bidaiarien nahiak hogei urte pasau eta gero. Bizkaiak segitzen dau lurraldea hobeto hezuramaitzen, bai errepidez, bai trenbidez.

### **Bizkai geroago eta modernoagoa, hurragokoa eta arduratsuagoa**

Lan horreri ekin deusagu geure etxetik hasita. Lehenengoz, sailak batu ditugu; eta batze hori gatxa izan da, bai etxe barrutik begiratuta, bai kanpoaldetik begiratuta. Bigarrenez, berba emon dogu jentaurrera eta idatziz azaltzeko zer egiten goazen, noz eta zenbateko kostua izango dauan. Eta, gainera, argi eta garbi ebaluatu nahi dogu zelan doazen ekintza horreek: zer egiten dan, zer ez, eta zergaitik. Bizkaia Goazen 2030 estrategiaz dihardut. Uste dot aldaketa izugarria dala pertsonakin izan behar ditugun hartu-emonetarako.

Aldaketa hori sinistamentu batetik dator: politikak pertsonen zerbitzuen mendean egon behar dau; gizakoiagoa izan behar dau, hurragokoa eta arduratsuagoa. Abangoardiako eredu nahi dogu kudeaketa egiteko eta uritarrakin ditugun hartu-emonetarako.

Eta, inork esan aurretik, nik neuk onartzen dot. Egia da, ez gara fin ibili katastroa berrikusteko egin dogun prozesu digitalagaz. Huts egin dogu komunikau dogunean zer egin nahi dogun; izan be, komunikazioa askozaz gehiago da katastroagaitik zenbat ordaindu behar dan esatea baino. Dabilenari pasetan jako. Gu pertsona normalak gara, eta enparauko pertsonai pasetan jakezan gauza bardinak gertetan jakuz geuri be bai. Eta txarto egin dogu. Jakina: txarto egin dogu. Danok lez. Dana dala, kargu hartu dogu, hurrengo ekimenetarako.





Esan deusuet onena etorteko dagoala, baina daborduko pausu batzuk egin ditugu: Gardentasunari buruzko Foru Araua onartu dogu eta entidade independenteak esan dabe estaduko diputazinorik gardenena gareala.

Bizkai arduratsuaeren barruan be bai, iruzurraren aurkako burruka sartu dot. Foru Aldundiak buru-belarri dihardu iruzurraren kontrako burrukan. Eta baditugu 914 pertsona langintza honetan. Izan be, iruzurra ez da Ikuskapen Zerbitzuko 107 ikuskatzaile eta ikuskatzaileordeen lana bakarrik. Kudeaketa eta Diru-bilketa zerbitzuetako likidatzaile, diru-biltzaile eta enparauko profesionalak jazarten deusie iruzurrari.

Eta iruzurrari jazartea hauxe da: urtean-urtean, eta ogasunen artean, 80 milioi datu baino gehiago gurutzatzea da.

Burruka horren datuak argi esaten dabe: Bizkaiko Foru Aldundiak, urtean, 500 milioi atara ditu azalera azken ekitaldietan. 2010etik 2015era, Fiskaltzari 134 ustezko delitu salatu deusaguz. Eta agiri-faltsutasunaren eta ondasunak ostentzearen beste hainbeste delitu salatu ditugu. 114 pertsona egon dira horreekin lotuta, eta 135 milioi euroko zenbatekoa dakarre. Izan be, bariku honetan argitaratuko dogu Bizkaiko Foru Ogasunaren zordun handien zerrenda. Eta datorren urtean ikuskapen-kanpaina bat jarriko dogu martxan gizarte-iruzurraren aurka. Ez deusegu ezer jasango beharra daukienai osten deusienai.

Lehenengo zati hau amaituko dot laugarren eta azken ardatzagaz.

### **Munduagaz eta aukera globalakin lotuta dagoan Bizkaia**

Konexino honek jarduera ekonomikoa eta enplegua lortu nahi ditu. Ikusten dozuen legez, hasierara itzuli gara. Zirkulua hasi eta ixten dogu jarduera ekonomikogaz eta enpleguagaz. Nahiz eta nik nahi ez, maleta-urtea izan da. Eta badinot nik ez nebala nahi, ze ez jataz gustetan bidaiak, ez eta hegazkinak be. Eta aukerakotzat hartzen ditugun lekuetara joan behar izan dogu. Aukerako leku horreek gure enpresentzat dira eta geure interes eta erronka bardinak ditue. Geure diasporak asko errazten deusku leku horreetan sartzea.

Horigaitik izan gara Txilen, Boisen, eta Estatu Batuetako hainbat estadutan, berbarako Maryland edo Washingtonen. Eta maletak beterik ekarri ditugu. Txilen lagundu dogu 10 milioi euroko inbertsinoa lortzeko Bizkaiko enpresa elektriko batentzat. Boisen konfiantza-maila haundia lortu dogu, etorkizunean aliantzak egiteko asmoagaz. Washingtonen, Smithsonian Folklife Festivalen, lortu dogu azken urteetan mundu zabalean garrantzi gehien daukien helmuetako bat: lortu dogu Euskadi lako herri txiki bat askozaz gehiago eta askozaz hobeto ezaguna izatea; lagundu dogu 600.000 pertsonak munduko uriburuan bertan bizi-bizirik jakin daien zein dan gure kultura, gure hizkuntza eta gure enpresak; ikusi daiela nortasuna daukan lurraldea gareala, serioak gareala, eta aukerak emoten ditugula. Hartu-emon iraunkorrak zabaldu ditugu gure enpresen eta iparamerikar enpresen artean. Jaialdi horretan egindako ahalegina alperrekoa izango da, baldin eta hartu-emonok areagotzen ez baditugu. Hartu-emon horreek lantzen ez baditugu.

Eta ezagunak izateko beharizan hori dogula, oinarrizkoa da turismoa: datozela eta ezagutu gaiezala. Uda errekor bat itxi dogu Bizkaian. Ikasbide bat: erein behar da, ondorik uzta batzeko. Nabarmentzen dot gehikuntzak izan ditugula gure sustapen-ekintza egin dogun merkaduetan. Finlandiako merkadua, edo Alemaniakoa, edo Britainia Haundikoa. Azkenengoz, uste osoa daukat Tronuen Jokoa Gaztelugatxeko Donienen grabatzeak are ezagunagoak egingo gaituala.

Honaino legegintzaldiko lehenengo urtearen laburpena: urte tringoa, gatxa eta behar askokoa. Urte gatxa izan da ekonomiaren ikuspegitik. Abuzturaino, tributu itunduengaitik 4.184,9 milioi euro bildu ditugu, 65,7 milioi gehiago



2015eko epealdi berean baino. Diru-bilketa % 1,6an hazi da, eta hazkunde horrek badinosku ez dogula beteko ekitaldi honetako bilketarako jarri genduan helburua.

Oraindino itxaron behar dogu ea zelan doazen azken lau hilabeteak, baina 4.184,9 milioi horreek urrun dagoz markau genduazan 7.063,3etatik. Zergaitik? Ba faktore batzuk suertau dira batera. Soziedadeen gaineko Zergaren bilketak % 24,8 egin dau behera, eta 117,3 milioi gitxiago batu dira (101,2 milioi gitxiago diru-sarreretan, eta 16,1 milioi gehiago itzuli behar izan ditugu).

Diru-sarrerak % 70 gitxiago izan dira, Bizkaiko araudia aplikau behar daben enpresengaitik, eta % 30 gitxiago estaduko araudia aplikau behar daben enpresengaitik. Bizkaiko araudiaren mendean dagozan enpresetan, jaitsiera, gehienbat, enpresa energetiko birengaitik izan da; izan be, honeek 103,6 milioi gitxiago sartu dabe 2015ean baino. Estaduko araudiaren mendean dagozan enpresen jaitsiera etorri da zatika egindako ordainketagaitik; jaitsiera, barriz, finantza-sektoreko enpresetara bildu da (-12 milioi) eta energiaren sektoreko enpresetara (-6 milioi).

2015ean suertau zan legez, produktu energetikoen (oil&gasaren) prezioaren bilakaera "lauak" eragin dau BEZaren ziozko diru-bilketa be ez haztea. Eta datu bitxi baina benetakoa: aurten eta orain arte, 15 milioi gitxiago bildu ditugu loterien sariakaitik.

Horrenbestegaz, lehenengoz jakin behar dogu zelan amaituko dogun urtea. Eta oraindino ez dakizkigu aldagai garrantzitsu batzuk, halandaze, ezin geinke ondoriorik atara. Gomutazo nahi dot 2015eko azken hiruhilekoan etorri zala bertan behera BEZa, petrolioaren prezioak jaitsi ziralako. Itxaro dogu aurten BEZak hobera egingo dauala aurreko urteagaz konparauta. PFEZk ondo jokatu dau, eta % 5,3 egin dau gora, 2015etik. Bizkaiko enpresen Soziedadeen gaineko Zergak hobera joten dihardu. Eta estaduko araudiari jagokon legez, Estaduak oraintxe aldatu behar dau zerga hau, Europako Batzordeagaz hartutako konpromisoak beteko baditu.

Egoera horrela dala, ausartegia izango litzateke esatea zein dan diru-bilketa hobetu leikean kopuru zehatza, Herri Dirubideen Euskal Kontseilua egin aurretik. Aldeko haize horreek guztiok gorabehera, miraria izango litzateke aurreikuspenak beteko balitzaz. Hori gorabehera, segurtetan dot gastuari eutsiko deusagula gizarte-gastuan, zerbitzu publikoetan edo enpleguko eta jarduera ekonomikoko programetan. Bizkaian ez dago mozketarik, ez eta egongo ere. Ez dago eta ez da izango.

Gobernatu dogu, ekonomiaren abagune gatx hau gorabehera. Eutsi deusagu. Bizkaiko edozein familiak egin dauan legez egin dogu geuk be bai: lehentasunak ipini eta ahal doguna gastau. Eta datorren urterako gauza bera egingo dogu. Urte gatxa dogu aurrean, eta horrelaxe adierazi deusat neure taldeari. Urte gatx baina ilusionagarria, hori bai.

Jakitun gara langa goi-goian jarri dogula. Eta badakigu maila horrek egundoko beharra eskatuko deuskula. Erronkak gogoia bizten deusku. Indarrez beteten gaitu lan egiteko, lan egiteko eta lan egiteko.

Badaukagu aurrean legegintzaldi honetako urterik garrantzitsuena. Niretzat, azken hamarkadako urterik garrantzitsuena Bizkaiarentzat. Sentitzen dodan modura dinotsuet: azken hamarkadako urterik garrantzitsuena. Sinistuta nago funtsezko urtea izango dala emplegua, gazteria, pertsonen eta lurraldearen etorkizunerako.

Eta erabagi dogu urte hau berezi-berezia izatea arrazoi askorengaitik. Arrazoi horreen aurrean jarri dogu geure itxaropen haundia. Gure ikurra legegintzaldi honetarako Bizkaia Goazen dala. Datorren urtean aldatu egingo dogu ikur hori. Aldaketa arina egingo jako itxurari, baina sakona edukiari. Barrero emongo deusuet neure berba, eta berba hori niretzat funtsezkoa da. Bizkaia Goazen, batez be 2017an, Bizkaia Goazen Gazteak izango da.



Datorren urte hau Bizkaiko gazteena izango da. Urte horretan Foru Aldundiak buru-belarri jardungo dau gure gazteai aukera gehiago emoten. Nahi dot 2017a lehengoaren eta gerokoaren arteko bereizgarria izatea. Joera aldatzeko unea izan behar da Foru Aldundiaren eta gazteen arteko hartu-emonetarako. Ia ez gaitue ezagutzen, ia ez dakie zertan dihardugun. Eta hori arazoa da, baina baita aukera bat be.

Foru Aldundia hamar ildo prestatzen dabil gazteentzat laguntza eta aukera gehiago emoteko.

-Enplegu-anezka bat eskainiko deutsegu gazteai.

-Ekintzailetzako programa gehiago.

-Gehitu egingo ditugu Foru Aldundiak eskaintzen dituan praktikak eta beka. Nahi dot sail guztiak eskaini daiezala horreek guztiak.

-Bizkaia beka sortuko dogu: beka haundi bat izango da lurraldeko ikaslerik onenari laguntza emoteko.

-Eta bost beka gure etorkizuneko sektore estrategiko bakoitzari: automozinoa, energia, aeronautika, zidar-ekonomia eta IKTak. Beka honeek bide emongo dabe, prestakuntza munduko unibertsidade onenatariko baten osotzeko, beti be lana Bizkaian egiteko.

-Aukera gehiago emongo dogu prestakuntza nazioartean nor diran zentroetan egiteko. Prestakuntza atzerrian egin ahal izateko ez jake baliabideei begira egon behar, ezpada gaitasunai begira. Barriro dinot: nahi dogu euren prestakuntza amaitzen dabenean itzuli daitezala eta lagundu daiela euren beharragaz lurraldea hobetzen.

-Prestakuntza lagunduko dogu aeronautikan, automozinoan eta makina-erremintan. Saritu egingo ditugu formazino dualeko gazterik onenak.

-Indartu eta gizarteratuko dogu geure sortzaileen talentu artistikoa.

-Badihardugu lanean uda honetan nazioarteko ekitaldi bat ekarteko.

-Eta badihardugu aztertzen Bizkaia Gazte Txartela; txartel hori digitala izango da, eta merkataritzako, garraioko, astialdiko eta kulturako deskontuak bateratuko ditu. Eta leiho edegia izan behar dau informazino interesgarriarentzat.

Gazteekin dogun konpromiso honek ez deusku galazoko geure lau ardatz estrategikoetan buru-belarri jarduten. Garrantzitsuena, lehenasuna daukana, hauxe da: jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea, kalidadedun enplegua.

Urte giltzarria dogu ekonomiaren ikuspegitik. Arestian Keynesen aitamen bat topatu dot, gure nortasun ekonomiko eta industrialia agertzen dauana. Honela inoan Keynesek orain dala ia gizaldi bat: "Gobernu batentzat ez da garrantzitsua pertsonak eurak egiten dituen gauza bardinak eta hobetotxuago edo txartotxuago egitea, ezpada gaur egun inon egiten ez diran gauzak egitea".

Neure Gobernua ikusten dot berba horreetan. Gobernu ekintzailea gara, barrikuntzak egin nahi dituana, arriskatu nahi dauana. Ez dogu egoera bakarrik sortarazi nahi, sektore pribaduak falta dana egin daian. Barrikuntzak egingo ditugu eta arriskatu egingo dogu merkadu barriak sortzeko. Ortzemuga barriak ikusi nahi ditugu. Elkanok eta beste esploratzaile batzuek sumau eben bazala zerbait ortzemugatik harantzago. Geuk be bai uste dogu lerro haretatik



harantzago badirala aukera barriak Bizkaiarentzat. Eta bene-benetan sinistuta gagozalako jarri dogu branka harantz.

Apustuek beti ekarten dabe arriskua, guk geure egiten dogun arriskua. Izan be, barrikuntza porrotaren esku-eskutik doa; banaezinak dira, eguzkia eta itzala letxe. Porrot bakarra ez ahalegintzea izango litzateke. Beraz, erratu geintez, baina ez dogu porrot egingo. Eta ez dogu porrot egingo, ze ahaleginduko gara. Eta gure indar guztiakin ahaleginduko gara. Prest gagoz bide bat zabaltzeko gure industriarentzat. Estrategia giltzarri bi aitatu nahi ditut enplegurako eta jarduerarako. Estrategia giltzarri bi, Bizkaiko etorkizunarentzat, eta guztiokin partekatuko ditugunak datozen hilabeteetan.

Lehenengo estrategia da Bizkaian finantza-hub bat sortzea. Plan handigura bat da, lan-ildo oso zehatzak dituana. Sinistuta gagoz Bizkaiak badaukala bere leku berezia eskaintza ekonomiko globalean, eta prest nago behar egiteko, bera balioan jarteko eta erakusteko. Izan be, urtea amaitu aurretik, neurri fiskalen proposamen bat bialduko deusagu Tributuak Koordinatzen dituan Organoari, zertarako eta produktzioaren zerbitzupuan egon behar daben finantza-tresna barriak sakatzeko.

Lehenengoa barrikuntza-funts bat da. Foru Aldundiak benetan jotzen dau barrikuntzaren alde, eta horretarako, funts bat jarriko dogu barrikuntza berrabiatu nahi dauana, beti be produktua eta emoitzak hobetzeko. Saihestu nahi dogu herri honentzat onak diran proiektu barrizailleetarik bat bera alboratua izatea, behar dan moduko finantzaketarik ez egoteagaitik. Funts bat abiarazi behar dogu 600.000 eurorainoko finantzaketak egin ahal izateko, % 2ko korritutasagaz.

Funts hori guztion artean finantzatua izatea nahi dut. Hemengo uritarrak hemengo enpresa txiki eta ertainentzat. Guztiok izan behar dogu aukera gure herrian inbertitzeko, gure etorkizunean inbertitzeko. Inbertsino segurua dana, eta % 15eko kenkari fiskala daukana, etxebizitzarako aurrezki-kontuak lakoa. Inbertsino bermatua izango da, galtzeko arriskurik ez dakarrena, eta finantza-entidadeak merkaturatuko dabena. Aukera hori izango da aurreztaile guztientzat, baldin eta honeek prest badagoz euskal enpresa txiki eta ertainen barrikuntzaren alde egiteko; gainera, segurtasun osokoak izango dira. Aukera hori 50 urtetik gorako pertsonentzat be bai izango da, Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundea beteta euki eta alternatiba legez euren dirua bankuan ixtea baino ez daukientzat. Eta alternatiba izango da ondare garrantzitsuak daukiezan pertsonentzat be bai. Izan be, hareek funts horretan inbertitzen daben kopuruak desgrabazino fiskalak izango ditu tributuetan.

Zeintzuk dira abantailak gure enpresentzat? Batez be, arintasuna, bai eta korritu merkea eta tasa finkoa, merkaduetako aldaketakin zerikusirik ez daukana. Dei degitsuet Batzar Nagusietako taldeoi, gure enpresa txiki eta ertainen alde eta gure herriaren alde egin daizuen. Eta, horren arabera, aldaketa horreei laguntasuna emon diezuen. Sinistuta nago funts hori abian izango dala 2017ko lehenengo hilabeteetan. Barrikuntzak bertute asko ditu, besteak beste, enplegua, kalidadedun enplegua, ekartekoa, ondo prestauta dagozan gazteentzat, geureak dagozan moduan.

Ilusino haundia daukat estrategia honegaz, eta gehien sakatzen nauana hauxe da: ideia erreferentziako pertsonakin alderatu dogu, eta pertsonok be bai ilusionatuta geratu dira ideia honegaz. Badaukagu plan bat Bizkaiko ekonomia indartsuago bihurtzeko, Bizkaia Europako merkadu-hobi bihurtzeko. Eta merkadu-hobia izan daiten gure enpresa txiki eta ertainentzat. Apaltasunez esaten ausartuko nintzateke inork ez dakiala enpresa txiki eta ertainen gainean euskaldunok beste. Batu daigun esperientzia hori industriaren neurriera egindako finantza-ingurune bategaz. Inguru horrek erreferentziala izan behar dau Estaduentzat eta Europarentzat. Plan hori, barriro be, publikoaren eta pribaduaren arteko lankidetzaren eskutik ibiliko da. Alkarregaz indartsuagoak garelako.



Burutzen gabilzen bigarren estrategia handiak be bai jarduera ekonomikoa eta enplegua sortu nahi ditu. Foru Aldundiak beharrean dihardu jarduera ekonomikoaren beste sektore industrial bat suspertzeko, zidar-ekonomia deritxanaren ingurura bilduta, 65 urtetik gorako pertsonen errealidadea.

Demografiak marraztuta dauka etorkizuna. Datorren hamarkadarako proiektzioen arabera, Bizkaiko biztanleak 52.000 gitxiago izango dira (% 4,6 gitxiago), eta zahartzen doaz. Lanerako aktiboenak diran biztanleak 6 puntu egingo dabe behera; bien bitartean, 65 urtetik gorako biztanleak 5 puntu egingo dabe gora, eta bizi-itxaropena luzeagoa izango da gaur egungoa baino.

Hauxe da urte gitxi barru izango dogun oraina. Orain arte, errealidade hori gastuagaz bakarrik lotu dogu, hau da, harek dakarren gizarte- eta osasun-gastuagaz. Gastu publiko hori 1.500 milioi euro ingurukoa izango da Bizkaian bakarrik. Gure asmoa da errealidade horretatik beste aukera bat sortzea. Ahaleginduko gara sektore industrial barri bat sortzen, Bizkai barri horrek dakartzan beharrianai erantzuna emoteko: gaur egun inportatzen ditugun produktu eta zerbitzu, eta urte batzuk barru horreek guztiok hemen egingo ditugunak.

Negozio baten ganean berba egiten badogu, berbetan gabilz geroago eta bezero gehiago izango dituan negozio baten ganean. Uste dot aukera ageri-agerikoa dala, eta badaukagu plan bat hori egiten ahalegintzeko. Plan horrek badauka diagnostiko bat, aurrera egiteko ideia argi bat be, eta lankidetzeta publiko-pribadua dakar. Oraintxe bertan alderatzen gabilz ideia hori bertoko eragileekin eta nazioartekoakin. Gure ideia hauxe da: Bizkaian sendotuta dagozan enpresak aukera bat izan daiela dibertsifikatzeko eta merkadu barriai aurre egin ahal izateko. Produktu barriztatzaileak dira, etorkizunean geroago eta gehiago behar izango diranak. Produktu horreek egin behar dira, bai norberaren esperientzia, bai ikerketa eta talentua, eta bai Foru Aldundiaren bultzada oinarri hartuta.

Azkenengoz, badinotsuet Foru Aldundiak al bait lasterren onartuko dituala kontratazinorako gizarte-klausula barriak. Estaduak errekurtsua jarri eutsen aurrekoai, 2013ko zemendiaren 29an onartu ziranai. Gomutazo nahi dot eurok aplikau zirala harik eta deuseztatu zituen arte. Honetan be ez dogu etsiko. Sinistuta gagoz kontratazino publikoak egundoko garrantzia dakarrela pertsona eta enpresa askorentzat, eskumena daukagula neurri horreek emoteko, eta uritarrak neurri horreek eskatzen dituela. Horigaitik, kontratazino publiko arduratsuaren estrategia indartu nahi dogu, beti be gizarte-erispideak jasoteko.

Eta lau helburu nagusiok lortu nahi ditugu: saihestu edo kentzea enpresa kontratisten enplegaduen lan-baldintzen txartzea; Gizarte-erispideak sartzeta bai gizarte-bazterketako egoeran dagozan pertsonak, bai desgaituak diran pertsonak laneratzeko, enpleguaren kalidadea eta bidezko merkataritza sustatzea, andrazkoen eta gizonezkoen benetako bardintasuna eta familiagaz izan beharreko bateratzea lortzea; hirugarrenik, enpresa txiki eta ertainen parte-hartzea sustatzea kontratazino publikoan; eta azkenik, eredia izan. Hori bai dala gure ardura, ez ordea parteen artean sinatutako akordioak aldatu edo ez betetzea, Aldundiaren eta bizkaitarren kalterako.

Gizarte-eremuan hiru mugarri handi ditugu 2017rako: gizarte-zerbitzuen gutun barria ezartea, zaintzailearen estatutua, eta egoitzak ituntzeko eredu barria. Foru Aldundia sinistuta dago pertsonak gaitasuna daukiela euren bizi-proiektuak zuzentzeko eta badaukala gaitasuna erabagiteko non eta zelan nahi daben arreta jaso. Sare zabala daukagu, lurraldean orekatuta dagoana: egoitzetako 10.000 plaza baino gehiago dagoz ia 150 zentrotan.

Gure konpromisoa hauxe da: zentroen sarea sare aurreratua eta pertsonari bideratua egitea. Horigaitik, egoitza-eredu barri honek plaza-mota barriak sartuko ditu, zainketarako konplexutasun handia daukientzat. Plaza gehiago izango dira, 250 bat gehiago itunpekoak, eta 112 publiko, eta kontzeptu barria izango da: zerbitzua bermatu behar da, bai, baina baita zainketa aukeratzeko askatasun handiagoa. Pertsona da guztiaren erdigunea, bai eta erabagiarena be.



Zelan egingo dogu? Kontratu baten bidez; kontratu hori egiteko gonbidapena egingo jake lurraldeko egoitza baimendun guztiai plazak eskaini daiezala Foru Aldundiak hareek bete daizan prezio jakin baten truk. Egoitza baterako eskubidea onartuta daukan pertsonak zentroa aukeratuko dau, eta Foru Aldundiak zuzenean ordainduko deutso plaza zentroari.

Gure asmoa Europako Iparraldeko herrialdeetan oinarria duen eredu hau 2017an ezartea da. Bizkaia aurrendaria izango da Estaduan. Bizkaian mendetasuna daben pertsonak aukeratuko dabe eurak nahi daben zentroa, eta Foru Aldundiak ordainduko dau. Pertsonak erabagiten dau.

Orain gizarte-zerbitzuen gutuna aitatuko dot. Euskadiko Karteraren Dekretuak eta Gizarte Zerbitzuen Legeak adostasun politiko eta instituzional zabalak lortu ditue. Akordiorako gune dira; eta akordio horrek gizarte-zerbitzuen norabidea zehazten dau, bai eta Bizkaian be. Garbi daukagu zein dan norabidea, orain modulatu behar duguna aurrera egiteko abiadura da, eta hori errealismoz egin behar dogu. Komeni da adieraztea bide horren % 90 eginda dagoala daborduko; ez gagoz hutsean, Bizkaiko gizarte-zerbitzuen eraikina sendoa da, eta behartsuenak hartzen ditu. Horrenbestegaz, eraikitzen gabilz Bizkaian une honetan pertsonarik ahulenen zerbitzupuan dagoan errealidade baten gainean.

Errealidade horretan kolektibo batek arduratzen nau beren-beregi: beste pertsona batzuk zaintzen dituen pertsonak. Zaintzailea zaindu nahi dot. Zaintzailea ezinbestekoa da, baina ia ez da agiri edo ez da batere agiri, eta estimu gitxi izaten jako. Datu pare bat partekatuko dot zuokin. Zenbait txostenek dinoen legez, zainketa informala BPGd-aren % 4 baino gehituago da, eta enpleguaren % 8 ingurukoa da, ekonomia garatuetan.

Zainketa bardinkidetza-kontu bihurtu behar dogu, eta horretarako pertsona horreei balioa emon behar jake gizartearen aurrean, eta aurrera egin behar dogu estatus zehatz bat lortzeko. Gure erronka da kontu honeri heltzea eta garbitu behar diran kontuen artean honako honeek dagoz: zainketa informalen autortza administratibo eta legala sustatzea; formulak aztertzea, aurreikuspen-sistemarako ekarpenak konpentsetako; zerbitzu osoa garatzea, zaintzaileai informazioa eta laguntza emoteko; euren prestakuntza eta moldatze profesionala sakatzea; zainketa-lanetako segurtasuna eta ergonomia sustatzea; zaintzaileen aldian aldiko atsedendia bermatzea; eta genero-bardintasuna eta zainketa-lanen banaketa bardinkidea sakatzea.

Zuen baimenagaz, guztioi joakun eskakizun bat azaldu nahi deusuet: Gizarte Segurantzari eskatu behar jako mendekotasuna daukien pertsonen zaintzaileai benetako autortza emon deien.

Urte tringoa daukagu aurrean. Urtarrilaren 1ean hasita, izan be, egun horretan abian jarriko baita AP-8, Supersur eta Artxandako tuneletarako tarifen sistema integral barria. Sistema hori ona izango da uritar guztientzat, bermatuko baitau iraunkortasun ekonomikoa, bai eta finantzen eta ingurumenaren aldetikoak be, eta lagunduko deutso lurraldearen orekari.

Asfaltoaren gainean diraut, ze 2017. urtea giltzarria izango da errepideen etorkizunerako. Adostasunaren emoitza da, eta hurrengo hamarkadetakarako errepideen plan zuzentzailearen gainean eztabaidatuko dogu.

Eta Bizkai moderno, hurreko eta arduratsu horretaranzko bidean, pausu sendoak egingo ditugu. Laster baten partekatuko dogu Batzar Nagusiakin eta uritar guztiakin gure Gobernu Edegiaren estrategia. Munduko gobernu nagusiak ildo horrerri eusten badeutse, Bizkaiak ezin dau gitxiago izan.



Gure ustez, kontzeptu horrek beste kontzeptu batzuk zabaldu eta hobetzen ditu; izan be, beste kontzeptu horreek, eurenez bakarrik, indarra galtzen doaz, barbarako gardentasuna eta partaidetza. Gobernu Edegia hori be bada, baina askozaz harantzago doa.

Lehenengoz, informazioa jaso eta aztertu behar dogu zelan dagoan Bizkaia, eta horretarako partaidetzako eta gizarte-ikerketako tresnak erabiliko ditugu. Bigarrenez, egiten doguna ulertzeko moduan eta argi eta garbi kontatu behar dogu: informazio publiko, eskuraeraz eta egiazkoa eskainiko dogu. Hirugarrenez, hurrekoak izango gara, eta entzun egingo dogu; horretarako, uritarrak parte hartuko dabe bai proiektuen jarraipena egiteko, bai hareen ebaluazioa egiteko, bai buruz buru, bai on line. Laugarrenez, sarean eta lankide legez behar egitea gizarte zibilagaz. Eta, azkenik, ebaluatu behar dogu egiten doguna, eta erantzukizuna geureganatu behar dogu geure kudeaketagaitik, beti be haren kontuak emonaz.

Badinotsuet aurtongo zemenditik eta 2017ko apirilera hamar topaketa izango ditudala Bizkaiko uritarrakin, neure beharraren barri emoteko, esateko zer egiten gabilzen eta zer ez gabilzen egiten, eta uritarrak esan nahi deuskuenaren barri jakiteko.

Lehenengoa zemendiaren 10ean izango da Foru Aldundiaren jauregian. Ateak zabalduko deutseguz ehun bat pertsonari, eta guztiaren gainean egingo dugu berba. Alkarrizketa oinarritzkoa da; eta baleiteke modernoa izatea hain kontu zaharra dan besteari entzutea, baina benetan entzutea, aldatzeko gogoagaz. Bizkaia danon artean egiten dogu eta hemen danok balio dogu.

Foru Aldundia eskualdeetara eroango dogu, uritarrakana hurreratuko dogu, lehenengo bulego pilotuagaz, arreta osoa emoteko dana, Bilbotik kanpora. Ez da beharrezkoa izango Bilbora etortea, Foru Aldundiagaz tramiteak egiteko. Durangok eskualde osorako zerbitzu honeek izango ditu: Ogasun eta Finantza Sailarenak; Iraunkortasuna eta Ingurune Naturaleko Sailarenak; Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailarenak; Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailarenak; Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesiorako Sailarenak; eta Laguntza, herritarrenganako arreta zerbitzuarenak. Foru Aldundia, oso-osorik, eskualdearen zerbitzupuan. Eta Durangoko esperientzia ona bada, ondorik gehiago etorriko dira.

Hiru jarduketa ezin bereziagoak nabarmenduko ditut, lurraldearen aldeko hiru apustu, eta mundu zabalean oihartzuna izango dabenak. Lehenengoa da Metroaren 3. linea abian jartea 2017ko lehenengo hiruhilekoan. Linea horrek zuzeneko zerbitzua emongo deutse Bilboko alde horretako 70.000 gizonetzko eta andrazkoai, eta berean zehar 10 milioi lagun ibiliko dira urtean zehar. Eta ez bakarrik Bilbokoak, ze hobetu eta antolatuko ditu Txorierrri, Durango, Amorebieta, Gernika edota Bermeoko konexinoak.

Foru Aldundia hitzemonda dago Metroagaz. 1.320 milioi euro inbertidu dira 1988tik hona, ia milioi bat euro Bizkaiko biztanle bakoitzeko.

Bigarrena da Foru Aldundiak Guggenheimen hogeitau urtekin daukan lankidetzako osoa. Izan be, gaur egun be bai sinistuta gagoz museoaren bisitasunak lurraldea, lurralde osoa, aldatzen dauala. Foru Aldundiak bere burua jarri eban Guggenheimegaz hasiera-hasieratik, museoaren erdia ordaindu genduan eta orain bidezkoa da hareri eskerrak emotea, Bizkaia alde eta Euskadiren alde egin dauan guztiarengaitik. Nahi dogu hogeitau urteok distira berezia izan daiela eta beharrean gabilz museoaren zuzendaritzagaz, ekintza batzuk batera egin ahal izateko, beti be Guggenheimen lehenengo 20 urteok are ageriago uzteko asmoagaz. Hogeigarren urteurren hau aukera bihurtu nahi dogu, bai museoa, bai Bizkaia bizibarrizteko.



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia*  
*El Diputado General de Bizkaia*

Hirugarren jarduketa Gaztelugatxeko Donieneri jagoko. Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak partida bat izango dau hurrengo aurrekontuetan, Gaztelugatxeko Donienerako proiektu integral bat idazteko. Hobekuntza-obren plan bat baino askozaz gehiago danaz dihardut: plan integral bat aitatzen dot, honako kontu honeek lantzeko: haren kudeaketa, atzera etorri leitekezan diruak, aldea bizibarritzea, ingurumena babestea, turismoaren aldetik izan leikean indarra... Hau da, dana. Eta hori guztia egingo da epe ertainean eta epe luzean. Doniene garrantzitsua bada Bizkaiarentzat, eta gobernu honek oso garbi dauka badana, koherenteak izan behar dogu eta planteamentu iraunkor, serio eta etorkizuneko egin. Planteamentu hori partekatu behar da aldeko udalerrriekin eta eragileekin; esangura osoan partekatu behar dogu. Gure erantzukizuna da proposamena mahai gainean jartea eta uste dot geure proposamena udalehenean edo udako lehenengo asteetan aurkeztuko dogula.

Honek dira gure konpromiso nagusiak legegintzaldiko bigarren urterako. Ulertuko dozue zergaitik egin deusuedan berba ilusinoaren gainean. Zergaitik sinisten dodan 2017. urte hau izango dala Bizkaiko historiaren urterik garrantzitsuenetakoa. Zeregin bakarra dogu Gobernu legez: behar egitea Bizkai hobe baten alde. Benetan sinisten dot proiektu horreek guztiak onak dirala Bizkaiarentzat, onak dirala hemen bizi garean gizonezko eta andrazko guztiontzat, eta onak izango dirala hurrengo belaunaldientzat.

Sinistamentu horretatik luzatzen deusuet esku: proiektuok are hobeak egiteko. Baleiteke zuen berbaldiak honezkero idatzita izatea, eta eurotan burusiniskeria, gaitasunik eza, berbaldi hutsala, beti batekoa... berbak eukitea. Horixe gomendatzen dau politika zaharrak: Gobernuari, egurra. Berak jakingo dau zergaitik.

Itzi alde batera eskuliburu hori. Ausartu zaiteze. Izan zeuon gogoa Bizkaian, ez zeuon estrategietan. Izan bipilak eta seguru naz jenteak estimauko deusuela. Bizkaiaren arestiko historiaren urterik garrantzitsuenetako baten aurrean gara: gure gaztediarentzako urtea; proiektu eta ideia aldatzailez betetako urtea; gobernu indartsu eta batu, gogotsu eta ilusinodun bategaz, eta gizakume eta profesionalen talde ikaragarri batek babestua.

Eskerrik asko guztioi: foru taldeari, bai zeuon inplikazioagaitik, bai zuen arduraldi osoagaitik. Eskerrik asko zuoi guztioi, gaur begirunez eta gizalegez entzun nozuelako. Gauza bat bakarrik daukat esateko: pribilegioa da niretzat gaur egun hemen gaurko lako une ho